



JOSTAILUEK lotura estua dute haurren jolasarekin. Baina, haurren segurtasuna ez da, inola ere, jolasa. Jostailu batzuek nortasuna garatzen dute, haurren afektibitatea, mugimena, adimen-gaitasuna edo soziabilitatea bezalako alderdiak estimulatzen dituztelako. Komenigarria da haurren jostailuak anitzak izatea, haurrek sortzeko, mugitzeko, adierazteko, gizarte-harremanak izateko eta beste hainbatetarako duten potentziala garatu ahal izateko. Alabaina, horrek ez du esan nahi haurrek jostailu asko izan behar dituenik. Jostailuaren ontziak jostailua *hezitzailea* dela adierazteak ez du, ezinbestean, hori hala denik bermatzen. Adin jakin baterako egokiak diren jostailuak daude, baina ez neskontzako edo mutilentzako jostailuak.

Jostailuaren kalitatea eta egokitasuna kontuan hartu behar dira, baina, gainera, ezinbestekoa da produktu segurua izatea.

Publizitatea

Zenbait urte-sasoitan, Gabonetan eta oporretan esate baterako, nabarmen areagotzen da jostailuen salmenta. Fabrikatzaile eta saltzaileek promozionatzeko ahalegin berezia egiten dute eta hori telebistan, merkataritzako katalogoetan, publizitate-paneletan eta beste hainbatetan islatzen da. Indarrean dauden arauak mugak jartzen dizkiote jostailuen telebistako publizitatearen edukari, baita jostailuen salmenta sustatzeko

iragarkietan haurrek esku hartzeari ere. Publizitate horrek ezin ditu izan haurrentzat kaltegarriak izan daitezkeen irudi edo mezuak. Eta, horrezaz gain:

- Haurrek ez dira aurkeztu behar arrisku-egoeraren batean, inolako justifikaziorik gabe, edo indarkeria, bidegabekeria edo elkartasun-eza iradokitzen dituzten egoeretan. Bide beretik, ezin da egin armen kopia diren edo gerra edo indarkeria berekin dakartzaten jostailuen publizitatea.



Jostailuak



- Telebistako publizitateak ez du jostailuen ezaugarrien edo segurtasunaren inguruko nahasterik eragingo, ezta haurrak horiek kalterik gabe erabiltzeko beharrezko diren gaitasun eta trebetasunen ingurukorik ere. Halaber, ez du jostailuarekin batera edo bereiz saltzen diren elementuen inguruko iruzurrik egingo.



- Eraikitzeko, modelatzeko edo margotzeko jostailuen berri ematen duten iragarkietan, publizitateak ez du adierazitakoa egiteko erraztasuna handizkatuko.
 - Argi eta garbi adieraziko da jostailuari eskuz eragin behar zaion edo mekaniko egiten duen hori, iragarkia animatzeko efektuek inolako nahasterik eragin gabe. Gainera, jostailuak ez dira gehiegizko tamainan erakutsi behar.

Aurkeztea

Jostailuaren paketatzea handia eta ikusgarria izateak ez du ezinbestean esan nahi beste batzuk baino hobea denik. Ontzien ingurumen-ondorioak alde batera utzita, delako jostailuaren egokitasuna hausnartu behar dugu. Askotan, jostailua muntatzeko denbora eta ahalegin osagarri handia behar da, eta gainera, etxe guztietan ez da izaten jostailu jakin batzuk muntatu ondoren gordetzeko behar adina leku.

Jostailu asko plastikozko poltsetan bilduta egoten dira. Komenigarria da poltsa horiek airea sartu ahal izateko zuloak dituztela eta lodiegiak ez direla egiaztatzea. Izan ere, gisa horretan haurra itotzeko arriskua saihestuko dugu.

Etiketatzea

Jostailu batek izan ditzakeen argibideen arteko batzuk ezinbesteko gutxieneko datuak dira, honakoak hain zuzen ere:

- EE (CE) marka: sigla horrek jostailuak erkidegoko arauetan barne hartutako **segurtasunaren** inguruko funtsezko eskakizunak betetzen dituela adierazten du.
- Produktuaren izena, sozietatearen izena eta marka.
- Fabrikatzailearen, Eeko baimendutako ordezkariaren edo inportatzailearen helbidea.
- Gehienezko potentzia, elikatze-tentsioa eta energia-konsumoa (funtzioniamendu elektrikoa duten jostailuen kasuan).
- Erabiltzeko jarraibideak eta oharrak.

Datu horiek erraz ikusteko eta irakurtzeko moduan egon behar dute jostailuan nahiz paketatzean, baita aparteko liburuxka batean ere, mikrojostailuen kasuan adibidez.

Kontuz! Debehatuta dago EE (CE) markaren esanahiaren edo logotipoaren inguruko nahasteren bat eragin dezaketen markak jartzea. Beste markaren bat jartzen bada, marka horrek ez du EE marka ikusteko edo irakurtzeko aukera mugatuko.

Segurtasuna

Segurtasunaren inguruko ondorengo irizpideak daude indarrean, jostailuak fabrikatzeari dagokionez:

- Beharrezkoa bada, jostailua erabiliko duen haurraren gutxieneko adina zehaztuko da, eta heldu baten zaintzapean erabiltzeko gomendatuko da, hala badagokio. Ohar horiek etiketan, ontzian edo jostailuan bertan adieraz daitezke.
- 36 hilabete baino gutxiagoko haurrei bideratutako jostailuen zati banangarriek edo osagaiek haurrak ez irentsi ahal izateko bezain handiak izan behar dute. Kontu izan pieza txikiekin, begi edo botoiekin esate baterako, eta horiek jostailura lotzeko moduarekin.
- Arreta berezia izan behar da hondoratzeko eta oreka galtzeko arriskuarekin, uretako jostailuen kasuan.
- Jostailuak, horien zatiak eta jostailu desmontagarriak finkatzeko sistemak hauskartzak eta iraunkorrak izango dira, eta ez dituzte eragingo haustura edo deformazio arrikutsuak.
- Jostailuek edo horien zatiek ezingo dute 24 volt baino gehiagoko tentsioa izan. Erabiltzaileak erredura edo deskarga elektrikoetatik babesteko beharrezko neurriak hartuko dira.
- Debehatuta dago material toxiko, sukoi eta leherkorrak erabiltzea jostailuak egiteko. Jostailu batean substantzia eta prestakin arrikutsuak onartu ahal izango dira berori ibiltzeko ezinbestekoak badira, betiere kontzentrazio-muga batzuk errespetatu eta behar bezala etiketatuta.
- Erabiltzaileari mugitzeko aukera eskaintzen dioten jostailuek beren energiarako egokia izango den balazta-sistema izango dute, kalterik eragingo ez duena eta erraz erabiltzeko modukoa.



OHAR NAGUSIAK

Honakoak dira jostailu jakin batzuek erakutsi ohi dituzten esaldirik ohikoenak:

1. "Ez da egokia 36 hilabete baino gutxiagoko haurrentzat" edo "Ez da egokia 3 urte baino gutxiagoko haurrentzat".



2. Kometetan edo hegan egiten duten bestelako jostailuetan honakoa adieraziko da: "Kontuz, ez erabili linea elektrikoe-tatik hurbil".

3. Babesteko ekipoen kopiek –kasko, betaurreko eta maskarek esate baterako– honako oharra izango dute: "Ez du babesten istripuren bat izanez gero".

4. Uretako jostailuen kasuan, berriz: "Haurra zutik egon daitekeen tokian bakarrik erabili eta beti zaintzapean". Flotagailu ez diren puzgarrien kasuan: "Kontuz, ez erabili flotagailu gisa".

5. Patin eta patineteek ondorengo oharra izango dute, seguru erabiltzeko jarraibideez gain: "Kontuz, babesteko eki-poarekin batera erabili".

6. Saiakuntza kimikoen inguruko jostailuak 10 urtetik gorako haurrentzat bakarrik izango dira, eta ondorengo oharra izan behar dute: "Kontuz, substantzia arriskutsuak ditu".

2003



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA
Merkataritza eta Kontsumo Sailburuordatza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO
Viceconsejería de Comercio y Consumo



Kontsumitzailearen
Europako Zentroa KEZ
Centro Europeo del
Consumidor CEC

Donostia kalea, 1 • 01010 Vitoria-Gasteiz • Tfnoa.: +34 945 01 99 48 • Faxe: +34 945 01 99 47
E-maila: cec@ej-gv.es • <http://www.euskadi.net/consumoinfo>